



MENDIZABAL MURUA familia

ARRU Arruegi auzoko baserria da. Bertakoek diotenez, Arrue izena baserri horrek berak gordetzea, ingurukoak (*Arruarte*, *Arruarren* eta *Arruarren Goikoa*) ondoren egin zirela adierazten omen du. Hala ere, ezin da lau baserrion toki-izen hau bere kokapenetik bereizi. *Arru* alde batean, eta *Miranda* beste aldean, Zaldibin ziren bi talaien izenak badira behintzat.

Arru garrantzi handiko etxea zen Zaldibin eta bazuen kapila ere. Ikuspegi paregabekoa eskaintzen du *Arruegi* auzo guztiak.

Baserri inguruko soro eta sailen izenen artean ditugu *Aizporra*, *Luberri*, *Urretalde* eta *Azpikotxe* basoa.

Etxe-jabe dira *Arrukoak* 1920az geroztik. Aurreko jabeak, Cerroko Bizkondeak, ez omen zien beste aukerarik eman: erosi ala kale gorrian geratu. 1954an berritu zituzten sukaldea eta komuna.

Baserritik herrira, elizara, ordu erdi dago oinez. Baserritarrak izan dira eta sei behi zituzten. Ordiziako feriara joaten ziren eta han ahal zuten gehiena saltzen zuten: arrautza, gazta eta sagarra. Artoa, babarruna eta patata ere egiten zituzten.

1894an ezkondu ziren Josefa Mari Etxeberria Gaintzako *Zabale* baserrikoa eta Joxe Antonio Mendizabal.

1954an ezkondu ziren Margarita Murua, Abaltzisketako *Saro* baserrikoa eta Esteban Mendizabal *Arruko* semea. Larraitzen ezkondu eta otordua

egin, eta handik Iruñera joan ziren bidaian. *Arrura* ezkondu ziren eta artean bertan bizi ziren ama eta bi anaia-arreba.

Bost seme-alaba izan zituzten: Lurdes, Roman, Arantxa, Rosario, Joan Mari eta Xabier.



Baserriaren arrastoa idatzietan

Arrue agertzen da, *Arruarte*, *Arrue* eta *Arruebarren Goikoarekin* batera 1783-12-17an, Francisco Antonio de Echaveren aurrean, Enerio eta Aralarko sailen erabileraz bitartekari bati emandako botere-emaileen artean. Aipatzen denagatik *Arrue* baserritik lau lagun agertu ziren bilerara, eta beraz, ordurako etxe-bizitza bat baino gehiago izango zen bertan.

Informazio emailea: Margarita Murua.



MENDIZABAL MURUA familia

Josefa Mari Etxeberria (amona), Esteban Mendizabal (aita),
Margarita Murua (ama), Arantxa (besoetan),
Joxe Antonio Mendizabal (aitona), Roman eta Lurdes.



MENDIZABAL ETXEBERRIA familia. 1914



MENDIZABAL MURUA familia

Arantxa (besoetan), Margarita (ama), Esteban (aita),
Roman (besoetan) eta Lurdes.



MENDIZABAL MURUA familia. 1975

Arantxa, Lurdes, Roman, Rosario /
Esteban (aita), Xabier, Joan Mari eta
Margarita (ama).